

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	EREMU IREKIETAKO GARBIKETA	Iraupena	50
Kodea	MF1313_1		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eremu irekietako eta industria-instalazioetako garbiketa	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Industria-instalazioen eta -ekipamenduen garbiketa	Iraupena	80
	Eremu ireki eta industria-instalazioetako garbiketako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak.		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator UC1313_1: EREMU IREKIETAN GARBIKETA-LANAK EGITEA gaitasun-atalarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Eremu irekietako garbiketako oinarriko elementuak bereiztea.

EI1.1 Bide publikoetan eta bestelako eremu irekietan dauden hondakin-motak bereiztea, ondoren tratatzeko.

EI1.2 Garbitzen den bide-eremuaren jasangarritasuna mantentzea, ingurumen-arloan eta hiri-garbitasunaren arloan dagoen oinarriko araudiari jarraituz.

EI1.3 Garbiketa-lanak higiene- eta osasun-egoeran egiteko behar den laneko arropa-mota aipatzea.

EI1.4 Eremu irekietan garbiketa-lanak egiteko erabiltzen diren garbigarri-mota nagusien ezaugarriak eta funtzioak bereiztea.

EI1.4 Bide-garbitzarako egokiak diren produktuak erabiltzea, bermatuz segurtasuneko, laneko osasuneko eta ingurumeneko arudiak ongi aplikatzen direla.

EI1.5 Bide-zirkulazioko oinarriko araudia identifikatzea eta aplikatzea, eremu irekien garbiketa-lanak egitean.

EI1.6 Eremu ireki batean garbiketa-lanak egiteko kasu praktiko batean:

- Langileek erabiltzen dituzten jantziak eta oinetakoak identifikatzea, eta araudiaren arabera egokiak diren zehaztea.
- Eginkizuna betetzeko egokienak diren garbigarriak eta desinfektatzaileak zein diren adieraztea, eta haien etiketak behar bezala interpretatzea.
- Eremuan dagoen zirkulazioaren seinaleztapena ezagutzea.

A2: Eskuz edo mekanikoki ekortzeko teknikak aplikatzea kaleak garbitzeko, 3.500 kilogramotik beherako ibilgailuak, baliabideak eta tresnak erabiliz.

EI2.1 Eskuz ekortzeko tresnak eta lanabesak aipatzea, garbiketa-lanaren eta jarduera-eremuaren arabera.

EI2.2 Eskuz ekortzeko makinak eta lanabesak aipatzea, garbiketa-lanaren eta jarduera-eremuaren arabera.

EI2.3 Eskuz edo mekanikoki ekortzeko erabiltzen diren lanabesen eta makinaren mantentze-lanak eta garbiketa egitea.

EI2.4 Bideak garbitzeko lanetan, eskuz edo mekanikoki ekortzeko lan-metodoak zerrendatzea, bidearen eta hondakinaren izaeraren arabera.

EI2.5 Hondakinak uzteari eta ondoren biltzeari buruzko jarduerak bereiztea.

EI2.6 Jarduera honetan erabiltzen diren 3.500 kilogramotik beherako ibilgailuen oinarriko erabilera eta mantentze-lanak deskribatzea.

EI2.7 Eremu ireki jakin bat eskuz edo mekanikoki ekortzeko kasu praktiko batean:

- Ekorketa-metodori egokiena hautatzea, eremuaren faktoreen arabera.
- Eremuaren ezaugarriekin eta kondizioekin erabiltzeko jantzi, tresna eta makina egokienak identifikatzea.
- Garbiketa-lanak egiteko erabiltzen diren 3.500 kilogramotik beherako ibilgailuen, tresnen eta makinaren oinarriko mantentze-lanak eta garbiketa egitea.

A3: Gainazalak urez eta eskuilez garbitzeko teknikak erabiltzea, jarduerarako egokiak diren 3.500 kilogramotik beherako ibilgailuak, baliabideak eta tresnak erabiliz.

EI3.1 Gainazalak urez eta eskuilez garbitzeko lan-metodoak deskribatzea, zoruko zikinkeria-motekin lotuz.

EI3.2 Gainazalak urez eta eskuilez garbitzeko tresnak, lanabesak eta makinak zerrendatzea, jarduera-testuinguruaren arabera.

EI3.3 3.500 kilogramotik beherako ibilgailuen eta makinaren erabilera eta mantentze-lanak deskribatzea, eta haien propietateak, abantailak eta erabiltzeko moduak azaltzea.

EI3.4 Ur- eta energia-kontsumo orekatuaren ondorio ekonomikoak eta ingurumen-ondorioak deskribatzea, erabilera arduratsua kontuan hartuta.

EI3.5 Eremu ireki jakin batean urez eta eskuilez garbiketa egiteko kasu praktiko batean:

- Egin beharreko lana kontuan hartuta, jantzi eta oinetako egokiak hautatzea.

- Garbiketa-lanak egiteko behar diren tresnak, lanabesak eta makinak prestatzea eta erabiltzea.
- Uraren eta garbigarrien erabileran, kontsumo arduratsuko neurriak aplikatzea.
- Lana egitean gertatutako gorabeherak konpontzeko irtenbideak proposatzea.

A4: Eremu berezietan edo berehala jarduteko eremuetan garbiketa-teknikak aplikatzea, garbiketa-mota horren beharra eragin duen arrazoien arabera.

EI4.1 Eremu berezien eta berehala jarduteko eremuen ezaugarri nagusiak identifikatzea.

EI4.2 Berehalako jarduketako edo eremu bereziko garbiketarako erabiltzen diren tresnak, lanabesak eta makinak zerrendatzea, eta zergatik hautatu diren adieraztea.

EI4.3 Lan-eremuko bideetan dagoen seinaleztapena ezagutzea, zirkulazioarekin lotutako alferrikako arriskurik ez izateko.

EI4.4 Garbitu beharreko elementuetan, berehalako jarduketaren jatorriaren arabera, gauzatu behar diren ekintzak deskribatzea.

EI4.5 Eremu berezien garbiketan gauzatu behar diren ekintzak deskribatzea.

EI4.6 Jarduera honetan erabiltzen diren 3.500 kilogramotik beherako ibilgailuen oinarriko erabilera eta mantentze-lanak deskribatzea.

EI4.7 Eremu berezietako garbiketa-lanak egiteko erabiltzen diren tresnak eta makinak erabiltzea eta haien mantentze-lanak egitea.

EI4.8 Garbitzeko produktuen etiketak eta segurtasun-fitxak interpretatzea, eta haien erabilgarritasuna eta erabilera-arauak baloratzea.

EI4.9 Eremu berezi edo berehala jarduteko eremu baten garbiketako kasu praktiko batean:

- Lan egingo den eremu-mota identifikatzea, bai eta haren ezaugarri nagusiak ere.
- Herritarrei garbiketa-lanak egiten ari direla jakinarazteko seinaleztatze- eta balizatze-mota definitzea.
- Lan egiteko jantzi-mota egokiak zehaztea.
- Kasuari dagozkion garbiketa-lanak egiteko behar diren tresnak eta materialak hautatzea.
- Kasuari dagozkion garbiketa-lanak garatzea segurtasuneko, laneko osasuneko eta ingurumeneko oinarriko araudiak aplikatuz.

A5: Hustubide eta kainu-zuloak garbitzeko prozedurak aplikatzea, baita hiri-altzariak eta paramentu bertikalak garbitzeko prozedurak ere, haien mantentze-lanak egiteko.

EI5.1 Hustubideak, kainu-zuloak, altzariak eta paramentu bertikalak garbitzeko lanen ezaugarriak identifikatzea.

EI5.2 Lan-metodoak zerrendatzea, eta jarduera bakoitzarekin lotzea.

EI5.3 Hustubideak, hiriko altzariak eta paramentu bertikalak garbitzeko erabiltzen diren tresnak, lanabesak eta makinak zerrendatzea, eta zergatik hautatu diren adieraztea.

EI5.4 Hustubideen, kainu-zuloen, sareten eta zuhaitz-txorkoen gainazalak garbitzeko eta haiek libratzeko prozedura adieraztea.

EI5.5 Lan-eremuan egiten ari den lana adierazteko jarri behar den seinaleztatze- eta balizatze-mota identifikatzea.

EI5.6 Plataforma edo eskaileretan lan egiteak eragiten dituen arriskuak deskribatzea, eta istripurik ez gertatzeko hartu beharreko segurtasun-neurriak zehaztea.

EI5.7 Garbiketa-lanetatik sortzen diren hondakinei, jasoko dituzten zerbitzuek jasotzen dituzten arte, zer tratamendu eman behar zaien adieraztea.

EI5.8 Garbigarriak erabiltzeak osasunari eragiten dizkion arriskuak identifikatzea.

EI5.9 Hiriko eremu bateko altzariak eta paramentu bertikalak garbitzeko kasu praktiko batean:

- Adierazi zer garbiketa-mota egin behar den, bai eta garbiketa zer elementu materialen gainean egingo den ere (zutoinak, paperontziak, semaforoak, bide-seinaleztapena, bankuak, fatxadak, eta abar).
- Herritarrei garbiketa-lanak egiten ari direla jakinarazteko seinaleztatze- eta balizatze-mota definitzea.
- Kasuari dagozkion garbiketa-lanak egiteko behar diren tresnak eta materialak hautatzea eta prestatzea.
- Kasuari dagozkion garbiketa-lanak garatzea segurtasuneko, laneko osasuneko eta ingurumeneko oinarriko araudiak aplikatuz.
- Garbiketa-lanak egiteko erabiltzen diren tresnak eta materialak garbitzea eta haien mantentze-lanak egitea.

A6: Hondartzak garbitzeko teknikak aplikatzea, osasun-egoera onean erabili eta hondartzak gozatu ahal izan dezaten.

EI6.1 Hondartzak garbitzeko egin behar diren lanak deskribatzea.

EI6.2 Hondartzak garbitzeko erabiltzen diren tresnak, lanabesak eta makinak zerrendatzea, eta zergatik hautatu diren adieraztea.

EI6.3 Hareari eta jasotako hondakinei, jaso behar dituzten zerbitzuek jasotzen dituzten arte, zer tratamendu eman behar zaien erabakitzea.

EI6.4 Organismoa hondakin toxiko edo arriskutsuekin kontaktuan egoteagatik izan ditzakeen arriskuetatik babesteko erabili behar diren nahitaezko lan-tresnak hautatzea.

EI6.5 Jarduera honetan erabiltzen diren 3.500 kilogramotik beherako ibilgailuak erabiltzeko modua eta oinarriko mantentze-lanak deskribatzea.

EI6.6 Hondakinak uztean eta, ondoren, biltzean egin behar diren jarduerak adieraztea.

EI6.7 Hondartza jakin bateko harea garbitzeko kasu praktiko batean:

- Erabili behar diren garbiketa-teknikak zehaztea.
- Kasuari dagozkion garbiketa-lanak egiteko markatutako tresnak eta materialak hautatzea eta prestatzea.
- Kasuari dagozkion garbiketa-lanak garatzea segurtasuneko, laneko osasuneko eta ingurumeneko oinarriko araudiak aplikatuz.
- Hareako hondakinak kentzea eta harea bahetzea.
- Hondartza garbitzean bildutako hondakinak segurtasunez maneiatzea.
- Garbiketa-lanak egiteko erabiltzen diren tresnak eta materialak garbitzea eta haien mantentze-lanak egitea.

Edukiak

1. Garbiketa-lanetarako oinarrizko elementuen identifikazioa.

- Hondakin kontzeptua.
- Udal-hondakin motak (zakarrak, gorotzak, orbela eta abar).
- Hondakinen tratamendua (murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea): oinarrizko alderdiak.
- Ingurumena eta garapen jasangarria.
- Hiri-garbiketari buruzko oinarrizko araudia.
- Jantzien eta oinetakoen erabilera:
 - Klimaren eta urtaroren arabera (anoraka, berokia, eta abar)
 - Araudiaren arabera (katalogazioa, nahitaezko jantziak, kolorea, txaleko islatzaileak, eta abar)
- Garbiketa- eta desinfektatze-produktuak
 - Garbigarriak (detergenteak, disolbatzaileak, eta abar)
 - Distira-emaileak (desugertzzaileak, zigilatzaileak, eta abar)
 - Produktu espezifikoak
- Produktuen aplikazioa (toxikotasuna, osasunerako arriskuak, eta abar)
- Garbiketa-produktuak irenstea edo erabiltzeagatik intoxikatzea nola jokatu.
- Etiketak eta segurtasun-fitxak interpretatzea.
- Zirkulazioko oinarrizko arauak.
- Laneko arriskuak prebenitzeko neurrien aplikazioa eta segimendua
 - Arriskuen identifikazioa
 - Norbera babesteko ekipoen erabilera
 - Seinaleztatzea eta balizatzea

2. Ereku irekietan eskuz eta mekanikoki ekortzeko lanak.

- Eskuz edo mekanikoki ekortzeko (eskuzko ekorketa, mekanikoa eta mistoa) tresnak, lanabesak eta makinak definitzea eta sailkatzea.
- Eskuzko ekorketako edo ekorketa mekanikoko lan-metodoak.
 - Eskuzko ekorketa (pilatzea, biltzea eta botatzea)
 - Ekorketa mekanikoa (hezetzea, eragitea eta xurgatzea)
- Ekorketa-metodo bat edo beste hautatzeko faktoreak:
 - Populazioaren dentsitatea (hiriguneak, auzoak, bizitegi-eremuak, eta abar)
 - Zoru-mota (asfaltatu erregularra edo irregularra, zuhaitz-txorkoak, elkarguneak, zoru lurtsua, hustubideak, kainu-zuloak, eta abar)
 - Urtarora (orbela ugaritzea)
 - Bide-mota (galtzadak, oinezkoentzako eremuak, plazak, zintarri libreak, biribilguneak, erdibitzaileak, eta abar)
 - Hondakinen ezaugarriak.
- Paperontziak hustea (irauliz, poltsa kenduta eta zuzenean)
- 3.500 kilogramotik beherako garbiketa-ibilgailuak erabiltzeko modua. Ekorgailua bidearen eta hondakin-motaren arabera programatzea (abiadura, orientazioa, bira-kopurua, presioa, hezetze-maila, eta abar)
- 3.500 kilogramotik beherako ibilgailuen garbiketa eta mantentze-lanak.
- Ereku irekietan eskuz eta mekanikoki ekortzeko lanetan segurtasuneko, osasuneko eta ingurumen-babeseko arauak aplikatzea.

3. Gainazalak urez eta eskuilaz garbitzeko tekniken aplikazioa.

- Gainazalak urez eta eskuilaz garbitzearen arteko aldeak (presioa erabiltzea, ur beroa, gehigarriak erabiltzea, hala nola detergenteak, desinfektatzaileak, distira-emaileak, eta abar)
- Zikinkeria-motaren arabera urez eta eskuilaz garbitzeko lan-metodoa.
 - Eskuz urez garbitzea (ur-hargunearen erabilera, lehentasuneko erabilerako eremuak)
 - Mekanikoki urez garbitzea (urez garbitzeko makinaren erabilera, lehentasuneko erabilerako eremuak)
 - Era mistoan urez garbitzea (lehentasuneko erabilerako eremuak)
 - Eskuila bidezko garbiketa
 - Eskuilez eta urez garbitzeko makineriaren erabilera.
 - Urez eta eskuilez garbitzeko makineriaren oinarrizko garbiketa- eta mantentze-lanak.
- Urez eta eskuilez garbitzeko lanetan erabiltzen diren baliabideak, tresnak eta ibilgailuak: garbiketa eta mantentze-lanak.
 - Eskuilez garbitzeko makinak
 - Mahuka eramateko orga
 - Urez garbitzeko makinak
- Ereku irekietan urez eta eskuilaz garbitzeko lanetan segurtasuneko, osasuneko eta ingurumen-babeseko arauak aplikatzea.

4. Ereku berezietan eta berehala jarduteko gertakizunetan garbiketa-teknikak aplikatzea.

- Ereku bereziaren eta berehala jarduteko eremuaren kontzeptuak.
- Ereku bereziaren katalogazioa:

- Edukiontzien ingurunea
- Ezpondak eta leku maldatsuak.
- Arekak eta bazterbideak.
- Eskailerak, lur azpiko pasabideak.
- Gaeko aisialdiko eremuak eta jai-eremuak.
- Azokak eta azoka txikiak
- Ibai-ertzak, iturriak, urmaelak.
- Eremu bereziak garbitzeko teknikak.
- Berehala jarduteko eremuaren katalogazioa:
 - Zirkulazio-istripuak.
 - Animalia hilak kentzea.
 - Isurketak.
 - Hondakin zorrotzak.
 - Elurra eta izotza.
- Berehala jarduteko eremuak garbitzeko teknikak.
- Lan-eremuak seinaleztatzea eta balizatzea: eremu bereziak eta berehalako jarduerako eremuak.
- Eremu bereziaren eta berehala jarduteko eremuaren arabera erabiltzen diren tresna-, lanabes- eta makineria-motak (haize-makina, sasi-garbitzeko makina, lantaldeko ibilgailua, eta abar).
- Eremu berezietan garbiketa-lanak egiteko makineriaren erabilera.
- Erabilitako makineriaren oinarrizko garbiketa- eta mantentze-lanak.
- Eremu irekietan urez eta eskuilaz garbitzeko lanetan segurtasuneko, osasuneko eta ingurumen-babeseko arauak aplikatzea.
- Eremu berezietarako eta berehala jarduteko eremuetarako garbiketa-produktu espezifikoak: ezaugarriak, funtzioak eta etiketatzea.

5. Hustubideetan, hiri-altzarietan eta paramentu bertikaletan garbiketa-lanak egitea.

- Oinarrizko kontzeptuak: hustubide, kainu-zulo, hiri-altzari, paramentu bertikal, eta abar.
- Hauek garbitzeko eta erabiltzeko teknikak:
 - Hustubideak eta kainu-zuloak.
 - Hiri-altzariak: paperontziak, markesinak, informazio-panelak, azpiegiturak eta abar.
 - Paramentu bertikalak: hormak, kale-argiak, bide-seinaleak, eta abar.
- Garbiketa-lanetarako tresnak, lanabesak eta makineria: ezaugarriak, prestaketa, garbiketa eta mantentze-lanak.
- Garbiketa-lanak egiten ari direla adierazten duten seinaleak eta balizak.
- Garbiketa-lanetako laneko eta ingurumeneko segurtasuna eta osasuna.

6. Hondartzak garbitzea.

- Hondartzak garbitzeko teknikak.
 - Azpiegitura.
 - Altzariak.
 - Harea.
- Hondartzak garbitzeko tresnak, lanabesak eta makineria: ezaugarriak, prestaketa, garbiketa eta mantentze-lanak.
- Jasotako hondakinak tokiz aldatzea/maneiatzea.
- Hondartzan garbiketa-lanak egiten ari direla adierazten duten seinaleak eta balizak.
- Garbiketa-lan horietako laneko eta ingurumeneko segurtasuna eta osasuna.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eremu irekietako eta industria-instalazioetako garbiketa.